

PREBENTZINOA. Antolatzaileek astialdia eta kirola lotu nahi ditue, eta droga-menpekotasunari alternatibea bilatu

Eskola arteko XIII. olinpiadek 1.500 lagun jasoko ditue bihartik aurrera

Lea-Artibaiko LH eta DBHko ikasleak Ondarroan batuko dira aurten

Lore Bengoetxea |

Lea-Artibaiko Amankomunazgoak eskola arteko XIII. olinpiadak antolatu ditu, bihartik aurrera, Ondarroan. Ekimenak LH eta DBHko 1.500 ikasleak batuko ditu, kirolen bitartez drogomenpekotasunei alternatibak emateko gogoagaz.

Bittor Txakartegi lekeitiarrak egin dau, urtero legez, kirol eta jolas topaketak iragarten dauen irudia. Aurtengoa XIII. edizinoa izango da, eta, beste batzuetan letxerik, ondarrutarrak izango dira anfitrioiak. Izan be, lekeitiarren, markinarren eta euren artean banatzen dabe urte bitik behin gauzatzen dan ekimena antolatzeko ardura.

Dana dala, eskualde guztiko ikastetxeek hartzen dabe parte. Aurten, 1.500 ikasle batuko dira Ondarroan, 551 LHkoak, 418

DBH 1 eta 2koak, eta 476 DBH 3 eta 4koak.

Guruzne Osa Amankomunazgoko Prebentzino azpibatzordeko lehendakariak olinpiadak antolatzeko arrazoiak azaldu ditu. «Kirola astialdiagaz batu eta gazteei alkar ezagutu eta osasuntsu bizitzeko aukerak emon nahi deutseguz», esan dau.

Aurten, antolatzaileak izaneran, Ondarroako ikastetxeetako kirol arduradunak dira ekimenari itxurea emon behar deutsienak, eta horretan dihardue azkenengo egunetan. Txomin Agirreko Bernar Landaribarrek, gane-ganetik, DBHko ikasleentzat prestatu daben egitarauaren barri emon dau. «Herri guztian ibiltzen ahaleginduko gara. Horretarako, ikastetxe bakoetak daukan azpiegitura eta herrian dagoana erabiliko dogu,



NEKANE AKARREGI

Antolatzaileek ekimenen azkenenengo zehaztasunak lotzen dihardue.

NOIZ ZEINTZUK

DBHkoak bihar eta etzi batuko dira, eta LH 5 eta 6. mailakoak, maiatzaren 10ean; eskualde guztiko ikasleentzako zitea da

hau da, jolastokiak, frontoia, futbol zelaia, hondartzea eta errekea», adierazo dau. Ganera,

jolas alternatiboentzat be tarte lagako dabe. Ikusi ahal izango diran kirol batzuk honeek dira: saskibaloia, jokoia, beisbola, esku pelotea, palea, atletismoa, pisu jaurtiketea, ping-pong, mendiagaz lotutako ekimenak eta herri kirolak. DBHko lehenengo zikloko ikasleak bihar batuko dira, eta bigarrenekoak, barikuan.

Maiatzaren 10ean LH 5 eta 6. mailako umeen txandea helduko da. «Kasu horretan, ez dogu

horrenbeste lekurik hartuko, bixkat kontrolauta eukitearren», argitu dabe.

«Ikastetxe guztietako ikasleak nahastuten ahalegindu gara, neska eta mutil, azken baten alkar ezagutzea be badalako helburua», nabarmendu dabe. «Ikasleek zein gehiago hori albo batera laga daien nahi dogu, gatxa izaten bada be», esan dabe. Beste alde batetik, saririk ez da egongo. «Ondo pasetea izango da ordaina», dinoe.

BERRIATUA. Gernikako bonbardaketea gogoan eukita egin dabe irudia



LORE BENGOETXEA

Mendibarren frontoiaren aurpegia dotoretzen dihardue

Berriatuko frontoiak itxura barria hartu dau azkenengo egunetan. Udalak eskatuta, graffiti margoztu dau Alex Mosterin artisteak alboko horman. «Dotoretu beharra ikusten zan. Izan be, Berriatuko eta kanpoko jente asko joaten da bertara neurketak ikustera», azaldu dau Udalak. *Gernika* koadroa inspiraziotzat hartuta, irudi ederra egin

dau, Udaleko ordezkariak pozik lagateko modukoxea. Baina ez da hor gelditu frontoiaren itxura aldaketea, Mosterinek frontisean be beharra egin dau eta. Horma beteko irudian, zestalaria eta esku pelota jokalaria jaso nahi izan ditu. Hemendik aurrera, frontoi zaleek badaukie beste atxaki bat Mendibarrenera hurreratzeko.

LAGUNTZAK. 514.697 euro banatuko ditu

Eusko Jaurlaritzak dirua gorde dau hiru herriren garapenean laguntzearren

L. B. |

Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Nekazaritza Sailak diru laguntzea emongo dau Ondarroa, Lekeitio eta Markinako hainbat garapen proiektuentzat. Joan zan urtean erabagi zan proiektu horreek gauzatzeke dirua gordetea. Hiru herriok, danetara, 514.697 euro eukiko ditue (85.638.375 pezeta).

Ondarroan alamedea barritu egin nahi dabe, eta horretarako 228.384 euro jasoko ditu Udalak (37.999.900 pezeta). Fraile eta Azpillaga S.L.-k, Ondarroako Nabaldea proiektuaren barruan, 100.000 euro lortuko ditu (16.638.600 pezeta). Azkenengo proiektu hori Ondarroako Plan Estrategikoaren barruan dago. Ganera, alturako arrantzaleen alkartearentzat 60.101 euro dagoz (9.999.964 pezeta),

arrainaren salmentarako tokiak barritzeko eta arrantzaleei zuzendutako ikastaroak antolatzeko. Lekeitioko kofradiak 66.111 euro (10.999.944 pezeta) eskuratuko ditu, berrantolaketeagaitik eta izotza banatzeko sistema barriagaitik.

Beherakadeari aurre egitearren

Eusko Jaurlaritzak arrantzeagaz lotutako jarduerak izan dauen jeitsierea izan dau gogoan laguntzak emoneran. Holan, egoera hori jasan dauen herriei lagundu nahi izan deutso, «sektorea indartu eta dibertsifiketeko helburuagaz».

Beste alde batetik, Markina-Xemeingo Lea-Artibai eskoleak, enpresentzako ekipamendu eta zerbitzu teknikoaren proiektua amaitu dauenez, 60.101 euro hartuko ditu (9.999.964 pezeta).